

## gaurkoan

Patxi Zabaleta (\*)

## zelatan



## Nafarroa Oinez Lizarran

Goazen!

Urtean urteko ospakizuna iduritzen baldin bazaigu ere garrantzitsuena, oraingo hau garai eta egoera bereizi batean izan den ikastolen egoera Nafarroan berezia da. Alde batetik larria; ikastola asko itxi egin dituzte, batzuetan beste aterapiderik ez zegoelako; beste batzuetan berriz borondate politikoak horixe agindu duelako, nahiz eta itxi diren ikastolak etorkizun garbikoak izan.

Zein da ikastolek duten geroa, zein da etorkizunean izanen duten laguntza? Lagunduko ahal du Nafarroako Gobernuak Tuteran ikastola bat eraikitzen?

Galdera hauek gaurkoz ez dute erantzun garbirik, ez dute erantzun zahatzik! Nafarroako gobernua esate baterako Hiruherri ikastola itxierazi zuen bitartean, badirudi aurtengo Nafarroa Oinez ekintzarako egin den bideoari diru laguntza eman diola. Alde batzuetan modu batera, besteetan bestera; inolako ziurtasunik gabe. Berdintsu gertatu da helduen alfabetatze eta euskalduntzeari dagokionez edo gure hizkuntzaren erabilpen ofizialari dagokionez!

Guzti honetatik ondorio bat atera daiteke argi eta garbi: Ez dago gaurkoz euskarari

laguntzeko plangintza bat eginik eta onarturik.

Baina gainera beste ondorio larriago bat atera dezakegu gaurko Nafarroako egoera sozio-politikotik; euskara den ondasuna, herri guztiaren ondasuna den gure hizkuntza hau gorrotatu eta gutxietsi egiten du herrialde honetako hainbeste eta hainbeste! Behar bada egoera honetan erruak ez daude bakarrik alde batean; agian denok gara errudun. Baina gure hizkuntzak ezin du gainean zama hori eramane; gure hizkuntzak ezin du inolaz ere bere bizkarrean egoera soziopolitikoaren tresna eta ikur izan. Lortu beharra daukagu nola edo hala gizarte honen gehiengoak ondasun eta aberastasun bezala onar dezan; lortu beharra daukagu nola edo hala Nafarroako hizkuntza, Nafarroa osoko, nafar guztion hizkuntza bezala onartua izan dadin; bakarrik horrela bihur bailiteke Euskal Herri osokoa ere izatea.

Badakit helburu zaila dela; badakit gorrotatzen dutenek onartu behar dutela esaten ari naizela. Baina ez da ezinezkoa. Aurtengo Nafarroa Oinez ospakizunak hasiera eman liezaioke iguera horri.

Ezina ekin ez egin eta honelakoak esaten dituen kantu horrek adierazten digu

bidea. Hemen, Nafarroan, mundu guztiari ongi iduritu zaio prestatu duten bidea.

Ospakizunera politikari eta honelakoek azaldu nahi izanen dute beren buruak erakustera. Aski da gogoratzea orain dela egun batzu izandako «KILOMETROAK» delako hori Luis M. Bandres, PNV-ko burueta-koak sekulakoak botata utzi zuela periodikoan. Gero alderdi bereko Arantzeta joan zen kamarak eta guzti. Hemen ere azaldu nahiak eta agertu nahiak jende bitxi asko ekarraziko du. Baina hori ona da; hori ez da ikur edo seinale txarra bezala hartu behar. Oportunistak eta aldakorak ondortzen direnean, ez dira uxatu behar, nahiz eta ez zaion ere konfidantzarik eman behar.

Euskararen eta ikastolen eta euskal irakaskuntzaren aldeko egun honetan, helburu horiek, —horiek bakarrik— erabili, eskatu eta aldarrikatu behar dira. Besteak beste tokiak eta garaiak izanen dituzte. Euskal Herriak dituen arazoak eta gogorkeriak ezin ahaztu dira, badakigu, eta gure herriaren etsaiek honelakoetan «normalizazioaren» itxura egin nahi izaten dutela ere jakina da, baina hala eta guztiz ere jokatzeko duguna hain garrantzitsua denean ez zaie ezta aitzakiarik ere eman behar.

Bai euskarari. Eta kitto! Eta gatzik ere basamortuan... etsaiari.

## cartas

Bautista  
Barandallari

Kaixo lagun:  
Sakanako zulo honetan duela gutxi arte ikusten ginean.

Gaur egun zailago badiagu ere elkar ikustea hik hasitako lan ugariak herriaren alde jen-

deak jarraituko ditek amorrazio gehiagoz hi barnean ikustea-gatik.

Atxilotu zintuztenean hire izena entzun nian eta denok eritzi berdinekoak garaia hartu nauk, beharrik ez zenituela aurrerz aurre haiekin topo egin bestela Mikeli bezala gertatuko litzaizuke.

Hi gaztea zarenez gero defenditu nahi izan duk politiko eta trafikante nazkagarri batzuk pikutara botatzen ari direna gaztediaren burrukarako gogoia, osasuna eta Euskadiren etorkizuna. Hamaika jende nahi geniketik hi bezalako langile asko sortzea Etxarrin. Orain agorrotzen nauk duela urte bat garai

hauetan hire herriko Nafarroa Oinezean nola ibili hintzen erabat sarturik hontan edo hartan Mikelekin batera urteko egiten zenuten bezala.

Edozein modutara bazekiagu hemen zaudela.

HIRE LAGUN BAT

## Lomé

Ez dakit nik xantxa denez deportatuak bisitatu ahal izatea. Sineskairtzago gertatzen baita deportatu aberzaleen egoera tristea ezagutzeari, beste zapalketa motak jasaten dituztena baino. Ez baitu ematen posible denik.

Togo-ra hurbiltzea tokatu zait oraingoan. Gure jendeak ez daki normalean herrialde ezeguzan hori nontsu denik ere.

Hasteko, Togo urrun dago: Atlantikoa gurutzatzeko hegazkinak sei/zazpi ordu behar baditu ere, Sahara basamortu gorriska atzean uzteko bost bat behar ditu.

Hegazkinetik irten orduko, berriz, bufada itogarriak aurpegira heldu: 40 grado (itzalean, jakina); eta hezetasun-tasa %98 inguruan kokaturik. Afrikako labean gaude.

Aireportuan aurkitu ditugu, irribareez halere, hiru aberkide gazte: Galdos donostiarrak, Castrillo oreretarra eta Eizagirre pasaitarra. Laugarren deportazio-kidea, Alberdi, han hil zen.

Hiru gipuzkoar hauek aurtan bete dute beren seigarren deportazio-urtea. Nola moldatzen dira horren luzaz?

Etxetik at daudenak hiru sailetan banatzen baditugu (presoak, errefuxiatuak, deportatuak), non jarriko genuke talde hau?

Presoen patu hitza inori «demokratu» beharrik ez dagoela dirudi. Ahabatez, denek jarriko litzuzteke gailen: zapalduek.

Errefuxiatuen multzoa letorke bigarrenik, ene uestez, gainbeherako ilara horretan. Eta gero, azkenak, deportatuak.

Atsotitzak diona ahazten dugu erraz: «gartzelak egin egiten ditu gizonak, deserriak desegin egiten dituelarik». Ez zaio inori lorerik ematen; baina deserriuei ere ez. Deserriuak, biziko bada, gauza bat ahaztu behar du: deserriera eraman duen ideia, hain zuzen. Bizirik iraun ahal izateko, biziaren ardatza izan dena utzi behar alde batera. Bizi izateko, hil egin behar: eta barne-munitetan zeramana, erazi. Hori da prezioa.

Hiru zigor-motak beren haragian pairatu dituztenak, ados bide dira honeta: funtean deportazioa gogorena. Ez fisikoki agian (ni berehala gaisotuko nintzateke temperatura hartan, beste asko bezala); ez gorputzaren ahotzearen aldetik: luzaz preso bizi direnen begiak eta larrukolorea begiratu besterik ez dira behar. Baina psikologikoki, tortura-tzaile izkutuaren aurpegia ezin ikustean, deportatuak bere burua galtzen du piskanaka. Deportazioak desberdineratu egiten du bere biktima, koloka jartzen bere zimentarriak, irizpidea hondatu, gertakarien garrantziaren metroa gal-erazi.

Kosta egiten zaigu oraindik deportatuen kinka larria konprentzea. Palmondonen artean, lanik egin gabe (mauka galanta, ez da?), turismoa ia-ia... Ez dirudi, ez. Eta gu konturatzeko ez garelako, arago.

Handik etorri berri honetan, hauxe izango da nire esakera: deportatuen egoera hitsaz jabeturik, adiskidetasuna eta gertutasuna erakutsi diezakeketen bide guztiak baliatzea: esku-titzak, edonolako bidalketak, prentsa-mozkinak, herrian filmatutako bideoak; eta, ahalean, bisitaldiak.

Beharretan daude, zinez.

Txillardegia